

BERGARAKO UDALA

UR ZERBITZUKO BRIGADARAKO ALDI BATERAKO ITURGIN OFIZIALA KONTRATATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

=====

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da **Ur Zerbitzuko brigadarako, aldi baterako** kontratuarekin, **iturgin OFIZIAL bat** kontratatzea, lehiaketa-oposizioaren bidez.

Lanpostua **C sailkapen-mailan C2 azpitaldekoa** da, eta 10. mailari dagokion soldata-maila du. Halaber, 2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Kontratuaren iraupena, estimatua, 2023ko uztailean hasi eta plaza bete artekoa litzateke (gutxienez 2 urte).

Lan-jardun osoarekin eta lansaio jarraian edo zatituan burutuko du lana, zerbitzuaren beharren arabera.

Lan-ordutegia: Lanegunak eta ordutegia Udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

Erabateko prestasunaren erregimena: Lanpostuak dedikazio bereziko erregimena izatea eskatu ahalko dio udalak, eta derrigorra izango du, hau da Erreten edo Guardia Txandan sartuko da, eta horrek esan nahi du langileak aldi behin bereziki prest egon behar duela une jakin batean dauden beharrei edo behar bereziei, istripuei, garrantzi handiko gorabeheriei edo larrialdi egoerei erantzun egokia eman ahal izateko.

Bestalde, Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu Zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, eskatzen bazaio, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

2.- Betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, honako hauek dira:

- Hornidura eta saneamendu sarearen ustiapen, mantentze, neurtze eta kontrol lanak egitea, hala nola:
 - Ur-gordailuen irakurgailuen jarraipena, irakurketa eta ur-ihesen kontrola.
 - Ur-horniduren sistemetan eta sareetan ireki eta itxiera lanak egitea.
 - Kondar-kloroaren irakurketa eta ur-deposituetan klorazio-lanak egitea.
 - Herriko ur-sarean instalazio berriak egin eta daudenen berrikuspenak eta mantentze-lanak egitea.
 - Iturgintza-lanak egitea.
 - Saneamendu eta euri-uren sarearen mantentze-lanak.
- Zanga eta kanalizazioak zabaldu eta ixtea.

- Ur Zerbitzuarekin zerikusia duten instalazio eta materialak pintatzea.
- Igeltserotza-lanetan harrizko eta hormigoizko hormak egitea, enkofratuak egitea, asfaltatze-lanak eta abar.
- Ur-kontagailuak irakurtzea eta ur-kontagailuak aldatzea etxebizitzetan eta merkataritza-lokaletan.
- Berankorrei edo ordaindu ez dutenei ur-hornidura etetea.
- Ur Zerbitzuko peoi-lanak.
- Eskatutako momentuan eta emandako egutegiaren arabera guardia zerbitzua betetzea.
- Bere prestakuntzaren eta kualifikazio profesionalaren barnean, eska diezaioketen beste edozein eginkizun.
- Orokorrean, Ur Zerbitzuko arduradunak eta Ur Zerbitzuko arduradunek/teknikariek eta bere kategorian haren arduradun hierarkikoak agindutakoa, bere lan-mailari dagokionean.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Deialdi honen helburuari jarraituz kontratatua izateko eta, beraz, hautaketa-probetan parte hartzeko, honako baldintza hauek ezinbestekoak dira:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua (DBH), Lehen Mailako Lanbide Heziketako graduatu-titulua edo baliokidea.
- b) Diziplina-espeditate batez edozein administrazio publiko edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko; edo langile lan-kontratudunen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iritea eragotziko duenik, hain zuzen.
- c) 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara-maila, derrigorrezkoa.
- d) Nazionalitatez, espainiarra izatea.

Era berean, enplegu publikoetara funtzionario gisa sartzeko hauta-probetan parte hartu ahal izango dute honako hauek ere, nazionalitate espainiarra duten pertsonen baldintza berberetan:

- a) Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarrak.
- b) Espainiaren eta Europar Batasuneko estatu-estatu-estatu herritartasuna dutenen ezkontideek, duten naziotasuna dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere herritartasuna dutenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, haien mende bizi badira.
- c) Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikagarri duten pertsonak.
- e) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin muga gaindituta ez izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

- f) Indarrean dagoen B motako gida-baimena edo baliokide baten jabe izatea.
- g) Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Betekizun hori betetzen dela frogatu beharko da hauta-probak gainditutakoan, udalak langileen osasun kontrolerako izendatutako medikuak egindako sarrera-azterketarekin.
- h) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-
eskubideengatiko tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (10,75 euro) ordaintzeari dagokionean, beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korrante honetan:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Hautaketa-prozesuaren amaieran behin betiko zerrendan aukeratutzat agertzen den izangaiak agiri originalak aurkeztuko ditu, bai eta beste guztiek ere, lan-poltsan gelditzen eta deituak izango balira.

- i) Iturgin lanetan ofizial kategoriarekin esperientzia izatea, gutxienez urte batekoa.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroko Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lanbide bitartez egingo dira eta **UZTAILAREN 6ra** arteko epean

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian ere jarriko dira ikusgai. Udalak **5 egun** naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoaren arabera (*39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena*).

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea eratzeko, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa; eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan ezarritakoa.

Epaimahaia osatuko dute mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek; inoiz ez dira izango bost baino gutxiago, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango da, ezinezkoa balitz espedientean ziurtatuta lagako delarik.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen probarako hartuko dute parte epaimahaian.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalean presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiak izan beharko dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzioa eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ere ezetsi ditzakete aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezingo da osatu, eta jardun ere ez, titular edo ordezko diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaitutako ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Lehenengo ariketako proba **uztailaren 10eko astean** izango da, eta uztailaren 7rako Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

1. ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Lanpostuaren profilari egokitzen den jakiteko ariketa(k) egin beharko d(ir)a: test psikoteknikoek, elkarrizketak... eta abarrek osatu ahal izango dute ariketa hau.

Epaimahaiak erabakiko du nolakoak diren eta bakoitzaren puntuazioa.

Ariketa honek gehienez ere **70 puntu** izango ditu. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren % 50 ateratzea.

2. ariketa: Euskara proba, derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Euskarako proba. Izangaien euskara-maila neurtzeko ahozko eta idatzizko proba egingo da. Derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak "gai" edo "ezgai" sailkatuko dira. Proba hau gainditzen ez dutenek hautaketa-bidetik baztertuta geldituko dira.

Azterketa honek **barne eraginak** soilik izango ditu eta Udaleko Euskara Zerbitzukoek egin eta baloratuko dute.

Ez dute proba hau egin beharrik izango 2. hizkuntza-eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla ziurtatzen dutenek, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau proba hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

8.- Merezimenduen fasea

Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

a) Lan esperientzia

— Bete behar den lanpostuaren funtzioekin –hau da, ur-horniduren sistemetan eta sareetan iturgin edo eta mantentze lanekin– erlazionatuta egindako lana: Gehienez ere **20 puntu arte**, eta hileko gehienez ere 0,30 puntu.

— Iturgintzan OFIZIAL lana: Gehienez ere **8 puntu arte**, eta hileko gehienez ere 0,15 puntu.

— Merezimendu horiek egiaztatu beharko dira lan egindako Enpresek eta zerbitzuak bete diren Administrazioek emandako ziurtagirien bitartez, eta Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduta.

Egiaztagirietan betetako funtzio guztiak zehaztu beharko dira, eta ez badira lanpostuaren eginkizunen artean jasotako gehienak aipatzen, epaimahaiak erabaki ahal izango du nola baloratu.

Kotizazio-agirietan ofizial kategoriari dagokion kotizazio-maila izan beharko da, eta gutxienez 6 hilabeteko iraupen jarraitua izan beharko dute bete baloratuak izateko.

b) Formazioa/prestakuntza

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da, gehienez ere **15 puntu** arte.

Ikastaroek gutxienez 10 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 10 ordukoari 0,10 puntu emango zaio, eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira. Horren guztiaren eraginetarako baloratuko direnak hauek izango dira:

- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, **2,5 puntu** arte.
- Lanpostuaren ardurekin zerikusia duten beste ikastaroak, **4,5 puntu arte eta bakoitzeko gehienez ere 1,5 puntu**.
- Iturgintza alorreko lanbide heziketa edo parekidea den titulua izatea **5 punturekin** baloratuko da.
- Kamioi gidaria izatea (CAPa) **3 punturekin** baloratuko da.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun batean proba bakar bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoirengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba psikoteknikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Titulazio osagarrien atalean puntu-kopururik handiena ateratzea .

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienekeora.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako lanposturako kontratatzeko proposamenarekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxieneke baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe gelditu dela aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo ditu, inolaz ere, deialdiko lanpostua baino izangai gehiago proposatu, lanposturako izangaien kasuan izan ezik.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitaratutakoan jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko kontratua sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, edo kontratua sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

11.- Kontratazioa - Praktikaldia

Epaimahaiak proposaturiko izangaiari alkate-udalburuak aldi baterako kontratua egingo dio, **Ur Zerbitzuko plantillan hutsik aitortzen den iturgin ofizialaren plaza behin betiko bete** artekoa, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da, bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa "gai"/"ezgai" izango da; Udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Kontratua egin aurretik medikuaren ikuskapena pasatu izanaren eta lanpostu honi dagozkion eginkizunei aurre egiteko gai dela adierazten duen ziurtagiria eta zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

Hala ere, eta frogaldia bukatu aurretik Bergarako Udaleko mediku zerbitzuak *bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko* behar diren osasun azterketa eta probak egingo dizkio, eta ukatuko balitz edo ez dela gai emango balu kontratua bertan behera utziko du udalak.

12. Lan-poltsa

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, Ur Zerbitzurako kontratazio-premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da, ur zerbitzurako iturgina edo ofiziala edo parekideak izan daitezkeen aldi baterako langileak kontratatzekeo premien aurrean bertara joko duelarik udalak.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du, onartzen denetik kontaktzen hasita, eta urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatetza Dekretu bidez onartuta duen Lan-poltsen Erabilerarako Barne Araudiak jasotzen duena izango da (eranskin gisa dago jasota).

13.- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du udalak.

14.- Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

16. Inpugnazioa

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen 39/2015 Legeak ezarritako epe eta moduan (*39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena*).

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL DE UN/A OFICIAL FONTANERO/A PARA LA BRIGADA DEL SERVICIO DE AGUAS

=====

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria la contratación **temporal**, mediante concurso-oposición, de un/a **OFICIAL fontanero/a para la brigada del Servicio de Aguas**.

El puesto de trabajo está incluido en el **grupo de clasificación C, subgrupo C2**, con un nivel retributivo 10. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

La duración estimada del contrato sería desde el mes de julio de 2023 hasta la cobertura de la plaza (mínimo 2 años).

El trabajo, a jornada completa, se desarrollará en jornada continua o partida según las necesidades del servicio.

Horario laboral: El calendario y horario laboral serán los fijados anualmente por el ayuntamiento, adecuándose siempre a las características de la plaza y a las necesidades del servicio.

Régimen de disponibilidad absoluta: El ayuntamiento podrá exigir que el puesto de trabajo tenga un régimen de dedicación especial, que será obligatorio, es decir, se integrará en el Retén o Turno de Guardia, lo que implica que el trabajador/a deberá estar dispuesto periódicamente de modo especial para responder adecuadamente a necesidades puntuales o extraordinarias, accidentes, incidencias de gran envergadura o situaciones de emergencia.

Por otro lado, si así se le exige, para responder a las necesidades de personal que exige la organización del programa festivo deberá trabajar en fiestas de Bergara, fiestas de San Martín, fiestas de San Marcial, Sábado de Ramos y similares, con previsión de todas ellas en el calendario.

2.- Funciones

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

- Labores de explotación, mantenimiento, medición y control de la red de suministro y saneamiento, tales como:
 - Seguimiento de los lectores de los depósitos de agua, su lectura y control de fugas de agua.
 - Realizar tareas de apertura y cierre de sistemas de suministro de agua y redes.
 - Lectura de cloro residual y realizar cloraciones en los depósitos.
 - Realizar nuevas instalaciones en la red de aguas y revisión y mantenimiento de las existentes.
 - Realizar trabajos de fontanería.
 - Tareas de mantenimiento de la red de aguas pluviales y saneamiento.
- Apertura y cierre de zanjas y canalizaciones.

- Pintado de instalaciones y materiales relacionados con el Servicio de Aguas.
- En cuanto a trabajos de albañilería, realizar muros de piedra y hormigón, encofrados, trabajos de asfaltado, etc.
- Lectura de contadores de agua y sustitución de contadores de agua en viviendas y locales comerciales.
- Realizar cortes de suministro de agua por morosidad o impago.
- Tareas de peón del Servicio de Aguas.
- Cumplir el servicio de guardia cuando se le exija y según el calendario facilitado.
- Cualquier otra función que le sea encomendada dentro de su formación y cualificación profesional.
- En general, todo aquello que le ordene la persona responsable del Servicio de Aguas y las personas encargadas/técnicas del Servicio de Aguas y su superior jerárquico en su categoría, respecto a lo que corresponda a su nivel laboral.

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Atendiendo a la finalidad de esta convocatoria, para la contratación y, por tanto, para la participación en las pruebas de selección, son requisitos imprescindibles los siguientes:

- a) Titulación de Educación Secundaria Obligatoria (ESO), titulación de Formación Profesional de Primer Grado o equivalente.
- b) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.
- c) Nivel de euskera correspondiente al perfil lingüístico 2, preceptivo.
- d) Ostentar la nacionalidad española.

Asimismo, podrán también participar en las pruebas selectivas de acceso a empleo público como funcionario, en las mismas condiciones que las personas con nacionalidad española, las siguientes personas:

- a) Las personas nacionales de estados miembros de la Unión Europea.
- b) También podrán participar el cónyuge de personas con nacionalidad española o de otros estados de la Unión Europea, sea cual fuere su nacionalidad, siempre que no estén separadas de derecho, así como sus descendientes y los/las del cónyuge, siempre asimismo que no estén separados de derecho, que sean menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad si están a su cargo.

- c) Las personas a las que, en virtud de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, les sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.
- e) Tener cumplidos dieciséis (16) años de edad y no haber superado la edad límite de jubilación forzosa, todo ello respecto a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.
- f) Estar en posesión del permiso de conducción B o equivalente, en vigor.
- g) Contar con capacidad funcional para la realización de sus funciones. El cumplimiento de este requisito deberá acreditarse una vez superadas las pruebas selectivas, con el reconocimiento de acceso realizado por la persona facultativa designada por el ayuntamiento para el control sanitario del personal.
- h) Haber abonado la tasa de derechos de examen, contemplada por el Ayuntamiento de Bergara en la Ordenanza Fiscal, para su participación en la convocatoria.
El pago de la tasa por realización de examen (10,75 euros) se realizará siempre mediante transferencia antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.
Al realizar la transferencia se deberá indicar obligatoriamente el número de expediente y el número de DNI de la persona que vaya a participar en la convocatoria.
El justificante de la transferencia se presentará junto con la solicitud.
El pago deberá realizarse dentro del plazo de presentación de solicitudes, en esta cuenta corriente:
KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569
La persona aspirante que al final del proceso selectivo figure como seleccionada en la lista definitiva deberá presentar los documentos originales, así como el resto de las personas que queden en la bolsa de trabajo y sean llamadas.
- i) Tener una experiencia mínima de un año en trabajos de fontanería con categoría de oficial.

4.- Instancias

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en la Oficina del Registro del Ayuntamiento de Bergara, y que se adjunta a las presentes bases.

Se realizarán a través de Lanbide **hasta el DÍA 6 DE JULIO** en el que finaliza el plazo.

5.- Admisión de personas aspirantes

Las listas provisionales de personas admitidas y rechazadas serán expuestas al público en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bergara, así como en su página web. El ayuntamiento concederá un plazo de **5 días** naturales para presentar reclamaciones, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

6.- Tribunal

6.1. Composición: El Tribunal Calificador del proceso de selección convocado se constituirá conforme a lo señalado en el artículo 60 del Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público –aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre–, así como lo señalado en el artículo 4 del Real Decreto 896/91, de 7 de junio, y en el artículo 81 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

El Tribunal contará con un/a presidente, un/a secretario/a y los/as vocales que determine la Alcaldía-Presidencia; en ningún caso podrán ser menos de cinco miembros y además la representación de mujeres y hombres deberá ser equilibrada, y si ello no fuera posible dicha imposibilidad deberá quedar acreditada en el expediente.

Formarán parte del tribunal por designación del IVAP un/a representante durante todo el proceso y otro/a para la prueba de euskera.

La relación nominal de los miembros titulares y suplentes que integran el tribunal, previa designación por la Alcaldía-Presidencia, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con los listados de las personas aspirantes admitidas y excluidas.

Podrán estar presentes, con carácter de observadora, las personas representantes de los partidos políticos con presencia en el ayuntamiento y una persona designada por los/as representantes del personal trabajador.

6.2. Especialidad: La composición del tribunal será predominantemente técnica, y la totalidad de sus miembros con derecho a voto deberá poseer una titulación o nivel académico igual o superior al exigido para el acceso a las plazas convocadas, y al menos la mitad de los miembros deberá poseer una titulación o especialización en el área de conocimiento exigida para el puesto.

6.3. Abstención y recusación. Los miembros del Tribunal Calificador deberán abstenerse de formar parte del mismo, notificándolo a la Alcaldía-Presidencia, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y las personas aspirantes podrán también promover su recusación conforme a lo establecido en el artículo 24 de la citada ley.

6.4. Asesoras/es: Se podrá disponer de asesoras/es especialistas para la programación o evaluación de las pruebas que se estimen pertinentes, limitándose dichas personas asesoras a prestar su colaboración en el ámbito de su especialidad.

6.5. Constitución y programación de tareas: El tribunal se constituirá antes de la realización de la primera prueba. En el acto de constitución deberán estar presentes la mayoría de los miembros titulares o suplentes del tribunal, y en dicha sesión se adoptarán las medidas oportunas para una programación, un desarrollo y una evaluación objetivas y eficaces de todas las actividades propias del proceso selectivo.

6.6. Procedimiento de actuación:

a) La actuación del Tribunal Calificador se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia, como mínimo, de tres (3) de sus integrantes, sean titulares o suplentes, excluyendo de dicho cómputo a quien actúe como Secretario/a. Los acuerdos del Tribunal Calificador se adoptarán con el voto favorable de la mayoría de los miembros presentes; en caso de empate, se utilizará el voto de calidad de la Presidencia del Tribunal para dirimirlo. Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto quien ocupe la Secretaría, que tendrá voz, pero no voto.

b) Podrá, en todo caso, el Tribunal Calificador resolver todas las dudas que pudieran surgir en aplicación de estas normas, e igualmente adoptará las medidas oportunas para toda adaptación necesaria de cara a la realización de las pruebas.

c) El tribunal en ningún caso podrá declarar seleccionado a un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas. No obstante, a fin de asegurar la provisión de la plaza en caso de que la persona seleccionada renunciara a la firma del contrato definitivo, se podrá requerir del Tribunal una relación complementaria con las personas aspirantes que figuren a continuación de las propuestas.

d) En caso de que ninguna de las personas aspirantes consiga superar todas las pruebas de carácter eliminatorio, el puesto será declarado desierto.

7.- Ejercicios de la fase de aptitud

La prueba del primer ejercicio tendrá lugar **la semana del 10 de julio**, y para el día 6 de julio se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bergara y en la página web del Ayuntamiento de Bergara la fecha, hora y lugar de celebración. Las siguientes convocatorias las anunciará el Tribunal de la forma que estime conveniente.

La fase de aptitud constará de los ejercicios que a continuación se indican:

— Ejercicio 1: De carácter obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la realización de una o varias pruebas —test psicotécnicos, entrevistas, etc.— para determinar si la persona aspirante se ajusta al perfil del puesto de trabajo.

El Tribunal decidirá el tipo de pruebas y la puntuación de cada una de ellas.

Esta prueba se puntuará como máximo con **70 puntos**. Para superar este ejercicio será obligatorio obtener en cada ejercicio al menos el 50 % de la puntuación máxima de cada uno de ellos.

— Ejercicio 2: Prueba de euskera, de carácter obligatorio y eliminatorio.

Prueba de euskera. Consistirá en la realización de unas pruebas orales y escritas para acreditar el grado de conocimiento de euskera de las personas aspirantes. Deberán acreditar conocimientos de euskera correspondientes al perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo. No se concederá puntuación, y se calificará a las personas aspirantes como “aptas” o “no aptas”. Las personas aspirantes que no superen esta prueba quedarán excluidas del proceso de selección.

Esta prueba, que será realizada y evaluada por los miembros del Servicio Municipal de Euskera, tendrá solamente **efectos internos**.

Estarán exentas de realizar dicha prueba las personas que acrediten estar en posesión de alguno de los certificados que se equiparan al perfil lingüístico 2, conforme a lo regulado en el Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Este certificado deberá entregarse antes del comienzo de la prueba.

8.- Fase de méritos

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre y cuando, de conformidad con lo establecido en el apartado b) de la base cuarta, hayan sido alegados en la instancia y acreditados mediante documentos

presentados junto con la instancia, teniendo como referencia la fecha de finalización del plazo para la presentación de solicitudes:

a) Experiencia laboral

– Trabajo desempeñado en relación con las funciones del puesto a desempeñar –es decir, fontanería y/o mantenimiento en redes y sistemas de abastecimiento de agua– un máximo de 0,30 puntos por mes, hasta un **máximo de 20 puntos.**

– Trabajo de OFICIAL en fontanería: un máximo de 0,15 puntos por mes, hasta un **máximo de 8 puntos.**

– Estos méritos se acreditarán mediante certificados expedidos por las empresas en las que se ha trabajado o por la Administración en la que se ha prestado los servicios, acompañados del documento de vida laboral expedido por la Seguridad Social.

En dichos certificados deberán especificarse todas las funciones que se han desempeñado. Si en la descripción de las funciones o tareas realizadas no se contemplan al menos la mayoría de las funciones correspondientes al puesto, el Tribunal decidirá la puntuación a otorgar en cada caso.

En los documentos de cotización, el nivel de cotización deberá ser el correspondiente a la de categoría de oficial, y con una duración continuada de al menos 6 meses para poder ser valorado.

b) Formación

Se valorará hasta un **máximo de 15 puntos** la formación complementaria que se entienda como valiosa para el ejercicio de las funciones y responsabilidades inherentes al puesto.

Los cursillos deberán tener una duración mínima de 10 horas para ser tenidos en cuenta. Por cada curso de 10 horas se concederán 0,10 puntos, puntuándose en adelante proporcionalmente. A todos estos efectos se valorará:

— Formación en el ámbito de Prevención de Riesgos Laborales, hasta **2,5 puntos.**

— Otros cursos relacionados con las responsabilidades del puesto: **un máximo de 1,5 puntos por curso, hasta un máximo de 4,5 puntos.**

— Estar en posesión de titulación de formación profesional en el área de Fontanería, o equivalente, se valorará con **5 puntos.**

— El permiso de conducción de camión (CAP) se valorará con **3 puntos.**

9.- Desarrollo de la fase de aptitud

Si el Tribunal lo estima conveniente, podrá variar el orden de los ejercicios establecido en la base séptima, así como decidir la realización de una única prueba al día.

Las personas aspirantes que no comparezcan en el lugar, día y hora establecidos por el tribunal en la convocatoria para la realización de los ejercicios, incluso por causa de fuerza mayor, quedarán excluidas definitivamente del proceso de selección.

Tras la realización de cada uno de los ejercicios que han de ser superados, el Tribunal acordará que se exponga en el tablón de anuncios la relación de aspirantes que lo hayan superado.

10.- Propuesta del Tribunal

La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos obtenidos, y esa suma determinará el orden de prioridad de las personas aspirantes.

En caso de empate en la puntuación, se decidirá de conformidad con los siguientes criterios, respetando su orden:

- a) La obtención de mayor puntuación en la prueba psicotécnica.
- b) La obtención de mayor puntuación en el apartado de titulación complementaria.

Una vez valorados los ejercicios, el Tribunal expondrá en el tablón de anuncios los nombres de las personas aspirantes que hayan superado el concurso-oposición, en orden decreciente conforme a los puntos obtenidos.

Del mismo modo, también publicará el nombre de la persona aspirante seleccionada, con la propuesta de contratación para el puesto objeto de esta convocatoria.

Si en opinión del Tribunal entre las personas aspirantes presentadas a la convocatoria no hay ninguna que cumpla los requisitos mínimos para cubrir el puesto de trabajo, puede declarar desierta la convocatoria.

El Tribunal no podrá, de ninguna manera, proponer más aspirantes que el puesto de trabajo convocado, excepto en el caso de las personas de la bolsa de trabajo.

El Tribunal remitirá el acta al órgano competente del Ayuntamiento de Bergara, al objeto de que realice las contrataciones correspondientes.

La persona aspirante propuesta, dentro del plazo que se establezca cuando se publique la propuesta de selección de candidata, deberá presentar los documentos originales que acreditan el cumplimiento de los requisitos que se exigen en las bases para tomar parte en la convocatoria, así como suscribir el contrato para comenzar a desempeñar su trabajo.

En caso de que la aspirante no acredite en el plazo establecido el cumplimiento de los requisitos exigidos, salvo que concurran razones de fuerza mayor, no podrá ser contratada y todas sus actuaciones quedarán anuladas. En este caso, el órgano competente realizará una propuesta a favor de la persona o personas que se encuentren en los siguientes puestos de la relación de aprobados, conforme al orden de la última calificación.

11.- Contratación - Periodo de prácticas

El Alcalde-Presidente realizará al candidato propuesto por el Tribunal un contrato temporal, **hasta la cobertura definitiva de la plaza de oficial fontanero/a que se declare vacante en la plantilla del Servicio de Aguas**, con el período de prueba legalmente previsto de dos meses.

Dicho periodo de prueba constituirá una fase más del proceso selectivo, con una calificación final de "apto" o "no apto", que será publicada en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

Antes de la finalización del periodo de prueba, el/la responsable correspondiente emitirá un informe sobre el trabajo desempeñado por la persona aspirante, en el que hará constar las aptitudes mostradas:

- capacidad de trabajo y rendimiento profesional, sentido de la responsabilidad y de la efectividad, disposición e iniciativa para el trabajo y, por último, interés mostrado hacia el trabajo.

- también se tendrá en cuenta la capacidad para amoldarse al equipo de trabajo.

Las licencias por situación de incapacidad temporal, maternidad, paternidad, adopción o acogida supondrán la interrupción del periodo de prueba, cuyo cómputo se reanudará a partir de su reincorporación al trabajo.

Antes de la firma del contrato, deberá someterse a inspección médica y presentar el certificado que acredite su aptitud para desarrollar las funciones correspondientes al puesto de trabajo, así como declaración jurada al efecto.

No obstante, antes de la finalización del periodo de prueba, el servicio médico del Ayuntamiento de Bergara le someterá a inspección médica y a las pruebas precisas *para comprobar su buen estado de salud y su aptitud para el cumplimiento de sus funciones en el puesto de trabajo*. En caso de negarse a ello, o de resultar “no apto/a”, el ayuntamiento dejará sin efecto el contrato.

12. Bolsa de trabajo

Con las personas candidatas que no hayan obtenido la plaza, pero hayan superado la oposición, se constituirá una bolsa de trabajo para atender las necesidades de contratación para el Servicio de Aguas, a la que acudirán el ayuntamiento ante las necesidades de contratación de personal temporal para fontanero/a u oficial en el servicio de aguas o similares.

El plazo de vigencia de dicha bolsa de trabajo será de un año, a partir de su aprobación, y será prorrogable anualmente, como máximo por otros cuatro años, siempre que no resuelva otra cosa la Alcaldía-Presidencia a propuesta de la Comisión de Interior.

La bolsa de trabajo se utilizará conforme a lo establecido en el Reglamento Interno para la gestión de bolsas de trabajo, que fue aprobado por el ayuntamiento mediante Decreto de Alcaldía de 4 de abril de 2006 (se adjunta como anexo).

13.- Devolución de documentación

Toda persona aspirante tendrá derecho a que se le devuelva la documentación que presentó junto con la instancia, salvo quienes vayan a ser contratadas y quienes figuren en la bolsa de trabajo.

Transcurrido un plazo de tres meses tras la finalización del proceso de selección, el ayuntamiento procederá a la destrucción y eliminación de la documentación que no haya sido devuelta.

14.- Publicaciones del proceso

Todo cuanto haya de publicarse durante este proceso (relación de personas admitidas y excluidas, resultados de la fase de oposición, resultados de la fase de concurso...) se publicará, así mismo, en la página web del Ayuntamiento de Bergara (www.bergara.eus)

De conformidad con la normativa para la protección de datos personales, todas las personas candidatas o participantes tendrán derecho al acceso, rectificación o cancelación de sus datos, para lo cual deberán presentar una solicitud por escrito dirigida a: Bergarako Udala – Ayuntamiento de Bergara, San Martín de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Incidencias

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos precisos para el buen orden del concurso-oposición respecto a todo aquello no previsto en las presentes bases o en la legislación de aplicación complementaria.

16. Impugnación

Estas bases podrán ser impugnadas por las personas interesadas en la forma y plazos previstos en la vigente Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.